

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

38. zenbakia

Data 2005-02-25

4199 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Eskolaren antolamendua eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Udalaren Musika eta Dantza Eskola

Antolamendu eta funtzionamendu Araudien behin betiko onarpena.

2004ko abuztuaren 31ko Donostiako Udalbatzak Musika eta Dantza Eskolako Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiak lehenengo aldiz onartu zituen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonak egokitzen zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Epe hori igaro ondoren, Jesus Melchor, Eskolako irakasleak aurkezturiko alegazioak erregistratu dira eta 2005eko urtarrilaren 25eko datarekin, Udal Plenoak erabaki zuen ez onartzea aurkeztutako alegazioak, ondorioz, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko, 49 c) artikuluan agintzen duena aplikatuz, behin-behineko akordioa behin betiko bihurtu da.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Estatutuak argitara ematera goaz.

Donostia, 2005eko otsailaren 17a.—Mikel Mate Ormazabal, Zuzendaria.

(360) (1649)

ESKOLAKO ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

SARRERA TITULUA

1. artikulua.

1. Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiaduna Donostiako Udalbatzak sortu zuen 1995.eko abenduaren 20ko ohiko osoko bilkuran.

Irakaskuntza arautu gabearen helburuak bere egiten ditu kultura sortu, kritikatu eta hedatzeari dagokienez, musika eta dantza diziplinen alorra berezitat eta lehentasunezkoztat edukita.

Arduratzat diru ikasketa antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Ikasketa Planean sartutako diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazio gestioa.

2. Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiadunak berezko eraketa juridikoa du, gaitasun juridikoa eta jokatzeko gaitasuna ditu eta eginkizunak autonomiaz betetzen ditu.

3. Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiaduna arautzeko erabiliko dira erakundearen estatutuak eta barne araudiak, urriaren 27ko 289/92 Dekretua –Euskadiko Autonomia Erkidegoko Musika Eskolak, musika irakaskuntza arautu gaberako ikastetxeak nola sortu eta antolatu arautzekoa– eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

2. artikulua.

Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiadunaren berezko zeregin izango dira estatutuek xedatzen dituztenak.

3. artikulua.

1. Musika eta dantza eskola baten jardunbidearen eta autonomiaren oinarria da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko programazioak, helburuak eta ikerketak koordinatzea.

2. Autonomia hori dela bitartez, irakasleek, ikerleek eta ikasleek beren erantzukizunak bete ditzakete gizartearen kultur beharrak ase ahal izateko.

I. TITULUA

ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN GOBERNUA

1. ATALA. Gestio, ordezkaritza eta gobernu organoak

4. artikulua.

Musika eta Dantza Eskolako organoak honako hauek dira:

—*Kide askotarikoak:*

a) Eskola Kontseilua.

b) Zuzendaritza Taldea

c) Irakasle Klaustroa.

d) Departamentu buruen Batzordea.

e) Departamentuak.

f) Administrazio eta Zerbitzuen Unitatea.

g) Profesionalen taldeak.

h) Ikasleen gurasoen asanblada.

i) Ikasleen asanblada.

—*Lagun bakarrekoak:*

- a) Erakunde autonomiadunaren lehendakaria.
- b) Erakunde autonomiadunaren zuzendaria.
- c) Ikasketa burua.
- d) Idazkaria.
- e) Departamentu buruak.
- f) Administrazio Unitatearen burua.
- g) Profesionalen taldeen zuzendariak.

KIDE ANITZEKO ORGANOAK

2. ATALA. Erakunde Autonomiaduneko Zuzendaritza Batzordea

5. artikulua.

1. Musika eta Dantza Eskolaren gobernua eta administrazioa Zuzendaritza Batzordeari dagozkie. Zuzendaritza Batzordearen lehendakari izango da erakunde autonomiadunaren estatutuek xedatzen duten laguna.

2. Zuzendaritza Batzordea arautuko da erakunde autonomiadunaren estatutuak eta eskolako barne arauak erabilita.

3. ATALA. Eskola Kontseilua

6. artikulua.

1. Eskola Kontseilua da hezkuntza komunitateko kideek eskolaren gobernuan parte hartzeko organoa. Gutxienez urtean hirutan elkartuko da, ikasturteko hiruhileko bakoitza amaitzeaz batera.

2. Honako kide hauek izango ditu:

— Erakunde autonomiadunaren zuzendaria, lehendakari moduan.

— Ikasketa burua.

— Klaustroak aukeratutako hiru lagun.

— Gurasoen hiru ordezkari.

— Ikasleen hiru ordezkari.

— Administrazio eta zerbitzuetako langileen 2 ordezkari.

— Idazkaria, akta jasotzeko, hizpidearen jabe izango da, baina botorik ez du edukiko.

7. artikulua.

Eskola Kontseiluaren zereginak:

1. Eskolaren Urteko Plana eta urteko oroitidazkia eztabaidatzea eta Zuzendaritza Batzordeari hura onartzeko proposatzea.
2. Eskolaren jardunbide orokorra aztertzea plan eta programa bakoitza gauzatu bitartean.
3. Eskola azpiegitura eta materiala berritzeari eragitea eta egoera onean egoteaz arduratzea.
4. Organo eskudunei argibide zehatzak eskatzea bere eginkizunak erabiltzeaz.
5. Eskola Egutegia onarkizun aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari.
6. Ikasleak onartzeko irizpideak eztabaidatu eta iradokitzea.
7. Istiluak aztertzea eta zigorren jakitun egotea.
8. Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia hobetzeko proposamenak egitea Zuzendaritza Batzordeari.
9. Matrikula prezio publikoak aztertzea, eta Zuzendaritza Batzordeari argibideak ematea haiek onartu aurretik.
10. Eskolaren funtzionamendua hobetzeko proposamenak aurkeztea.
11. Eginkizunak betetzeko egoki iritzitako batzordeak sortzea.

8. artikulua.

1. Eskola Kontseiluak bi bilkura mota egingo ditu: Ohikoak eta ohiz kanpokoak, gainera, presazkoak ere izan daitezke.
2. Saio arruntak, nahitaez, hiru hilean behin izango dira, hiruhilekoa amaitzeaz batera.

Ohiz kanpoko saioak erakunde autonomiadunaren zuzendariak deituta edo kideen heren batek, gutxienez, eskatzen duenean gauzatuko dira. Azkenari dagokionez, eskabidea aurkeztu eta, gehienez ere, hurrengo hamabost egunean elkartuko da.

9. artikulua.

1. Erakunde autonomiadunaren zuzendariak, lehendakari moduan, bilkurak deituko ditu, haietarako gai zerrendak ere prestatuta.
2. Eskola Kontseiluaren saioetan kide guztiek izango dituzte hizpidea eta erabakimena, idazkariak izan ezik, hizpidearen jabe baino izango ez delako.
3. Eskola Kontseiluko kideak bi urtean egongo dira arduran izendatu eta karguaz jabetzen direnetik, aginpidea amaituta bertan behera utzi beharko dutela, baita dimisioa emanda edo kargutik kentzen dituztelako.
4. Erabaki guztiak nagusigo hutsez hartuko dira.
5. Idazkariak bilkuraren akta egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

6. Aktak idazkariak izenpetuko ditu eta zuzendariak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte. Idazkaririk ez balego, erakunde autonomiadunaren zuzendariak izendatuko du akta jaso behar duen laguna. Aktak publikoak izango dira eta hezkuntza komunitateko kideek noiznahi kontsulta ditzakete.

4. ATALA. Zuzendaritza Taldea

10. artikulua.

1. Zuzendaritza Taldeko kide izango dira zuzendaria, ikasketa burua, idazkaria, profesionalen taldeen zuzendariak eta Administrazio Unitatearen burua.

2. Zeregintzat edukiko du Erakunde autonomiadunaren gobernuko gai guztietan zuzendaritza, laguntza, koordinazio eta aholkularitza lanak betetzea.

3. Zuzendariak deialdi bereziak egingo dizkie beren ardurako gaiekin zerikusi zuzeneko dutenak aztertzeke.

5. ATALA. Irakasle Klaustroa

11. artikulua.

1. Musika eta Dantza Eskolako Irakasle Klaustroa da irakasleok eskolan parte hartu ahal izateko organoa.

2. Musika eta Dantza Eskolan lan egiten duten irakasle guztiek osatzen dute.

Gainera, honelako saioretan partaide izan daitezke zuzendariak aholkulari edo laguntzaile moduan gonbidatutako lagunak, landu beharreko gaiaren arabera.

3. Klaustroaren burua erakunde autonomiadunaren zuzendaria izango da, eta idazkariak bilkuraren akta egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

4. Aktak idazkariak izenpetuko ditu eta zuzendariak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte. Idazkaririk ez balego, erakunde autonomiadunaren zuzendariak izendatuko du akta jaso behar duen laguna.

Aktak publikoak izango dira eta hezkuntza komunitateko kideek noiznahi kontsulta ditzakete.

12. artikulua.

Klaustroak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Eskolaren Curriculum Proiektua eta irakats ekintzen programa prestatzea eta onartzea, Eskolaren Hezkuntza Planean jasotako jarraibideen arabera.

2. Ontzat ematea Eskolaren Urteko Planaren berradostea eta urteko oroitidazkia onartzea.

3. Ikasleak ebaluatzeko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.

4. Ikasleen orientazio eta tutoretza irizpideak jartzea.

5. Eskolan garatu beharreko pedagogi esperimentazio eta ikerketa ekimenak sustatzea.

6.Ordezkariek aukeratzea Eskola Kontseilurako.

7.Eskolaren araudien gaineko dokumentu guztiak aztertzea.

8.Zuzendariari proposamenak egitea programazio orokorraren gainean.

9.Departamentu buruen batzordeari, Eskola Kontseiluari eta erakunde autonomiaduneko Zuzendaritza Batzordeari proposamenak, eskaerak, hobekuntzak, kezkak, txostenak eta abar aurkeztea, egoki iritziz gero.

10.Urteko aurrekontuaren gestioaren jakitun egotea, Eskola Kontseiluak eta Zuzendaritza Batzordeak landutako gaien eta erakunde autonomiadunaren gaineko beste edozein informazio jakingarriren berri jasotzea.

13. artikulua.

1.Irakasle Klaustroak bi bilkura mota egingo ditu: Ohikoak eta ohiz kanpokoak; bilkurok presazkoak ere izan daitezke.

2.Ohiko bilkurak, nahitaez, hilean behin izango dira, gutxienez. Ohiz kanpoko saioak erakunde autonomiadunaren zuzendariak deituta edo klaustrokideen laurden batek, gutxienez, eskatzen duenean gauzatuko dira. Azkenari dagokionez, eskabidea aurkeztu eta, gehienez ere, hurrengo zazpi egunean elkartuko da.

14. artikulua.

1.Klaustrokide guztiak nahitaezkoa dute bilkuretara joatea, erakunde autonomiadunaren zuzendariak irakaslearen eginkizunekin zerikusi zuzena duen beste eginbeharren bat egin behar izateagatik lizentziarik edo baimenik eman ezean.

2.Klaustroa legez eratzat joko da irakasle guztion heren bat bertaratuz gero. Quorumari eutsi beharko saio bilkura osoan erabakiak legezko izan daitezen. Nolanahi ere den, zuzendariak eta idazkariak edo beren legezko ordezkariak nahitaez egon beharko dute.

3.Erabakiak bozketa agerikoan hartzen dira, klaustrokideren batek bozketa sekretua eskatu ezean. Botoa aldekoa, aurkakoa, zuria edo bozketak berak eskatutakoaren arabera izan daiteke, bozketan klaustrokideek abstentziora ere jo dezaketela.

4.Araudi honek xedaturikoak izan ezik, akordioak onartuko dira aldeko botoen gehiengo hutsa edukita, hau da, aldeko botoek aurkakoak gainditzen dituztenean. Berdinketarik egotekotan, beste bozketa bat izango da eta, berdinketak bere hartan iraunez gero, zuzendariaren kalitate botoak erabakiko du.

15. artikulua.

1.Klaustroaren bilkuretan bertaratutako guztiak hizpidea eta erabakimena izango dituzte, zuzendariak eztabaida moderatu eta antolatzeke eskumena duen arren.

2.Landutako gaiak, 12. artikuluan jasotako eskumenen barrukoak ez badira, kontsulta mailakoak izango dira eta bozketek klaustrokideen kezkak baino ez dituzte adieraziko.

3.Onartutako akordioaren aurkako botoa eta hala bozkatzeko zioak jasoaraz ditzakete klaustrokideek. Hala bada, erabakiaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunetik salbuetsirik geratuko dira.

16. artikulua.

1.Klaustrokideen ohiko bilerak, gutxienez, astebete arinago deitu behar dira, gai zerrenda lagun, eta ohiz kanpokoak, bi egun lehenago.

2.Gai zerrenda Departamentu buruen batzordeak prestatuko du edo, horren orde, zuzendariak, baita gai zerrendako aztergai guztien gaineko dokumentu guztiak erakunde autonomiaduneko Administrazioa bidaliko ere, klaustrokide guztien esku egon daitezten.

3.Ohiko bilkuretako gai zerrendako azken puntu moduan jasoko da «Eskaerak eta galderak» atala. Atal horretan partaideek nahi beste galdera eta iradokizun egin liezazkiekete zuzendariari eta Departamentu buruen batzordeari betetzen dituzten karguen berezko zereginenez, baina horrek ez du biderik emango landutako gaiak atzera ere berritzeko.

4.Ezingo da gai zerrendan ez dagoen gairik erabaki, bilkuran aurkezten diren mozioak klaustrokide gehiengo absolutuak presazkotzat jo ezean.

17. artikulua.

1.Idazkariak bilkuraren akta egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

2.Aktak idazkariak izenpetuko ditu eta zuzendariak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte. Idazkaririk ez balego, erakunde autonomiadunaren zuzendariak izendatuko du akta jaso behar duen laguna. Aktak publikoak izango dira eta hezkuntza komunitateko kideek noiznahi kontsulta ditzakete.

6. ATALA.Departamentu buruen batzordea

18. artikulua.

1.Eskolako kide askotariko organo horretako kide izango dira honako lagun hauek: Erakunde autonomiadunaren zuzendaria, ikasketa burua, departamentu buruak, administrazio unitatearen burua, liburutegiko ordezkaria eta eskolako idazkaria.

gainera, honelako saioretan partaide izan daitezke zuzendariak edo departamentu buruen batzordeak aholkulari edo laguntzaile moduan gonbidatutako lagunak (ikasleen gurasoen ordezkaria, ikasleen ordezkariak, pedagogoak), landu beharreko gaiaren arabera.

2.Departamentu buruen batzordera nahitaez joan beharko dute batzordekide guztiek, lizentziarik edo baimenik izan ezean.

3.Idazkariak bilkuraren akta egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

4.Aktak idazkariak izenpetuko ditu eta zuzendariak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte. Idazkaririk ez balego, erakunde autonomiadunaren zuzendariak izendatuko du akta jaso behar duen laguna.

Aktak publikoak izango dira eta hezkuntza komunitateko kideek noiznahi kontsulta ditzakete.

5.Erabaki guztiak nagusigo hutsez hartuko dira.

19. artikulua.

Departamentu buruen batzordeak honako eskumen hauek edukiko ditu:

- 1.Zuzendariari laguntzea Eskola zuzentzeari eta koordinatzeko irizpideak hartzerakoan, baita funtzionamenduari dagokionez ondoriorik muntadunenak izango dituzten erabakietan ere.
- 2.Eskolaren Urteko Plana prestatzea irakasle Klaustrora bidaltzeko, gero Eskola Kontseilura eta, azkenik, Zuzendaritza Batzordera, onarkizun.
- 3.Eskolaren Urteko Plana koordinatzea eta gainbegiratzea, eta hura betetzen ari den ala ez jakinaraztea Eskola Kontseiluari eta Zuzendaritza Batzordeari, honek urteko oroitidazkia onar dezan.
- 4.Urteko oroitidazkiaren borradorea prestatzea edo horren prestakuntza koordinatzea, Klaustroak eta Eskola Kontseiluak azter dezaten.
- 5.Irakasle taldeak antolatzea eta erabakitzea zein irizpideren arabera izendatuko dizkieten zereginak irakasleei, gaia erregulatzeko duten arauetan oinarriturik.
- 6.Klaustroetako gai zerrenda prestatzea.
- 7.Kontsulta moduan aurkezten dioten beste edozein gai.

20. artikulua.

1. Eskolako Departamentu buruen batzordeak bi bilkura mota izango ditu: Ohikoak eta ohiz kanpokoak, gainera, presazkoak ere izan daitezke.
- 2.Ohiko bilkurak, nahitaez, hilean birritan izango dira, gutxienez. Ohiz kanpoko saioak erakunde autonomiadunaren zuzendariak deituta edo kideen heren batek, gutxienez, eskatzen duenean gauzatuko dira. Azkenari dagokionez, eskabidea aurkeztu eta, gehienez ere, hurrengo bost egunean elkartuko da.

Ohiko bilkurak astebetea arinago deituko dituzte eta, ohiz kanpokoak, bi egun lehenago.

- 3.Departamentu buruen batzordea legez eratzat joko da irakasle guztion heren bat bertaratuz gero. Quorumari eutsi beharko saio bilkura osoan erabakiak legezko izan daitezen. Nolanahi ere den, zuzendariak eta idazkariak edo beren legezko ordezkariak nahitaez egon beharko dute.

21. artikulua.

- 1.Departamentu buruen batzordearen bilkuretan bertaratutako guztiek hizpidea eta erabakimena izango dituzte, zuzendariak eztabaida moderatu eta antolatzeko eskumena duen arren. Lantzen diren gaiak, 19. artikuluan jasotako eskumenen barnean ez badaude, kontsulta mailakoak baino ez dira izango
- 2.Onartutako akordioaren aurkako botoa eta hala bozkatzeko zioak jasoaraz ditzakete Departamentu buruen batzordeko kideek. Hala bada, erabakiaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunetik salbuetsirik geratuko dira.

7. ATALA.Departamentuak

22. artikulua.

1. Departamentuak lantaldeak dira, eta halakoen ardura eta zuzendaritza Ikasketa buruak izango ditu eta, haren ordean, departamentu buruak berak.

2. Eskolaren egitura organiko eta funtzionalaren baitan, departamentuek jakintza alorrak globalizatu ez ezik, irakasleak alor haiekin bat datozen espezializazioko irakasleak biltzen ere dituzte. Eskolako irakasle guztiak egongo dira eskola ordu gehien ematen duten alorreko departamentuari, eta beste departamentu batzuen bilkuretara ere joan daitezke beren alorreko gaiak lantzen direnean.

3. Departamentu buruen Batzordeak Urteko Planean zehaztuko du departamentuen zerrenda, Eskolaren beharren arabera, baita nor izango diren bakoitzeko kideak.

23. artikulua.

Departamentuaren eginkizunak:

a) Alorreko eta espezialitateetako helburuak, metodologiak eta edukiak programatzea, baita haiek ikasturtean denboraren eta gaien arabera nola banatu behar diren erabakitzea ere.

b) Ikasturtean eskatu beharreko gutxienezko edukiak finkatzea.

c) Eskuratu nahiko helburuak ezartzea.

d) Zein metodologia erabili eta nola berritu zehaztea.

e) Ebaluazio irizpideak, azterketa motak eta guraso eta ikasleak jakitun jartzeko erabiliko diren txostenak zehaztea.

f) Irakasle Klaustroak emandako irizpide eta jarraibideak garatzea.

g) Hezkuntza ikerketa eta kideen prestakuntza.

h) Ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoak antolatu eta egitea.

i) Zein material behar den, lehentasunak, erabilera antolamendua eta zergatikoak zehaztea eta behar horien jakitun jartzea Eskolako Departamentu buruen Batzordea, horrek ondoriozko erabakiak har ditzan.

8. ATALA. Administrazio eta Zerbitzuen Unitatea

1. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN UNITATEA

24. artikulua.

1. Zeregintzat duna eskolaren behar guzti hauek gestionatu, koordinatu eta kontratatzea: Administrazioa, kontratazioa, ekonomia, artxiboa, txosten gestioa, matrikula gestioa, informazio gestioa, instalazio gestioa eta abar.

Administrazio Unitateak honako zerbitzu hauek hartzen ditu barne:

a) Administrazioa.

b) Idazkaritza eta Atezaintza.

c)Eraikin Artapena.

d)Barne erreprografia.

e)Informazio zerbitzua (informazioa erregistratzea eta hartzaileei banatzea).

2.Zerbitzuaren buruan Administrazio Unitatearen burua egongo da, eta bera arduratuko da, zuzendariarekin batera, zerbitzuari izendatutako langileen lana antolatu eta gainbegiratuko dute.

2. KAPITULUA. LIBURUTEGI ZERBITZUA

25. artikulua.

1.Liburutegiak eginkizun du, Eskola Komunitate eremuaren barnean, musika eta dantza kultura zein teknika sortu, zabaldu eta kritikatzeko behar den laguntza segurtatzea.

2.Liburuzaina arduratuko da haren funtzionamenduaz, eta zerbitzuak antolatuko eta gainbegiratuko ditu gizartearen, kulturaren eta teknologiaren bilakabideari egoki dadin, irakur zaletasuna sustatzeko eta erabiltzaileen prestakuntzarako laguntza emanda.

3.Zerbitzuen jomuga izango dira erabiltzaileak heztea, informatzea eta aisialdi beharrak betetzea, Eskola Komunitatea dinamizatzeko kultur akuilu jardunda. Gainera, programa eta proiektuak gauzatzen lagunduko die departamentuei, taldeei, eskola zerbitzuei eta liburutegi publiko, espezializatu eta musikalei.

3. KAPITULUA. BESTELAKO ZERBITZUAK

26. artikulua.

Erakunde autonomiadunak nahi beste zerbitzu edo lagun kontrata dezake izendaturiko zereginak edo gerokoan izan ditzakeenak behar bezala gauzatzeko: Garbiketa zerbitzua, garraioa, inprenta, erreprografia, grabazioak eta abar.

4. KAPITULUA. KANPO ZERBITZUAK

27. artikulua.

Beharrezko duenean, Erakunde Autonomiaduna beste udal zerbitzu osagarri batzuk erabiliko ditu: Lan eta lege aholkularitza, itzulpengintza, administrazioa, informatika sarearen aholkularitza eta abar.

9. ATALA. Profesionalen taldeak

28. artikulua.

1.Elkarteen bitartez sustatzen eta garatzen ditu erakunde autonomiadunak arte sormena, ikerketa eta pedagogia.

2.Zereginak betetzeko behar beste elkarte egongo dira.

29. artikulua.

1.Elkarte bakoitzak bere barne araudia izango du, eta haren aurreproiektua erakunde

autonomiadunaren zuzendariak prestatuko du, baita Zuzendaritza Batzordeak onartuko ere.

2.Elkarte bakoitzak barne eraentzako batzorde bana izango du.

3.Elkarte guztien arduradun nagusia erakunde autonomiadunaren zuzendaria da.

4.Elkarte bakoitzak zuzendari bana izango du, eta, beharrezko izanez gero, zuzendariorde bat.

10. ATALA. Asanblada eta Gurasoen Elkarte

1. KAPITULUA. IKASLEEN GURASOEN ASANBLADA

30. artikulua.

1.Asanblada honetako kide dira Eskolako ikasleen guraso edo tutore guztiak.

2.Asanbladak mahai bat edukiko du, Asanbladak aukeratutako hiru lagunek osatua, pertsona horiek Eskola Kontseilurako ordezkari ere izango dira. Haietako bat Asanbladaren eleduna izango da.

3.Mahaiko kideak aukeratuko dira aurkezten diren kide guztien artetik, nagusigo hutsez. Berdinketarik izanez gero, hautagaia zotz eginda aukeratuko dute.

4.Asanblada, nahitaez, urtean birritan bilduko da, haietako bat ikasturteko lehenengo hiruhilekoan, Eskola Kontseilurako gurasoen ordezkariak iritzi eman dezaten Eskolaren Urteko Planaren gainean. Eskola Kontseiluak Asanbladaren iritzia jakiteko aztergairien bat edo proposamenen bat aurkezten dion bakoitzean edo kideen %2k eskatzen dutenean ere elkartuko da.

31. artikulua.

Asanbladak informazioa eta iritzi eskabideak jasoko ditu honako gai hauek direla eta:

1.Eskolaren Hezkuntza Proiektua prestatzea eta aldatzea.

2.Eskolaren Urteko Plana.

3.Antolamendu eta Funtzionamendu Araudian eskubide-eginbeharrak eta bizikidetzak eta diziplina arauak definitzea.

4.Asanbladaren aholkularitza eskatzen duten bestelako alderdiak.

32. artikulua.

Mahaiaren eledunak deituko du Asanblada, mahaiak berak erabakiko dituen egunerako eta gai zerrenda aztertzeko. Asanbladaren mahai arduratuko da erakunde autonomiadunaren zuzendariari Asanbladak onartutako proposamenak eta adierazi nahi dizkion iritziak helarazteaz, baita Asanbladak egoki jotako ekintzak abiarazteaz ere.

2.KAPITULUA. IKASLEEN GURASOEN ASANBLADA

33. artikulua.

1.Gurasoen elkarteak aitek eta amek borondatez parte hartzeko eta laguntzeko organoak dira.

2.Eskolak onartuko egingo ditu indarreko legeen arabera eratuta egonez gero, eta Eskola Kontseiluari bide ofizialetatik jakinaraziko diote horrelakorik dagoela.

34. artikulua.

1.Eskola Kontseilua aldian-aldian egiten dituzten jardueren jakitun jarriko dituzte.

2.Beren ekintzak gauzatzeko Eskolako lokalak erabil ditzakete, irakats bizitza ohikoa oztopatzen ez badituzte. Zuzendaritzak behar dituzten lokalak utziko dizkie, Eskolaren baliabideen arabera eta elkarteak aurretik nolako beharrak dituen jakinarazi badio.

11. ATALA. Ikasleen Asanblada eta Elkarte

1. KAPITULUA. IKASLEEN ASANBLADA

35. artikulua.

1.Asanblada kide dira Eskolako ikasle guztiak.

2.Asanbladak mahai bat edukiko du, Asanbladak aukeratutako hiru lagunek osatua, eta pertsona horiek Eskola Kontseilurako ordezkari ere izango dira.

3.Mahaiko kideak aukeratuko dira aurkezten diren kide guztien artetik, nagusigo hutsez. Berdinketarik izanez gero, hautagaia zotz eginda aukeratuko dute.

Ikasleak 12 urte baino gutxiago baditu, ezingo dute mahairako aukeratu.

4.Asanblada, nahitaez, urtean birritan bilduko da, haietako bat ikasturteko lehenengo hiruhilekoan, Eskola Kontseilurako ikasleen ordezkariak iritzi eman dezaten Eskolaren Urteko Planaren gainean. Eskola Kontseiluak Asanbladaren iritzia jakiteko aztergairik edo proposamenik aurkezten dion bakoitzean edo kideen %2k eskatzen dutenean ere elkartuko da.

36. artikulua.

Asanbladak informazioa eta iritzi eskabideak jasoko ditu honako gai hauek direla eta:

1.Eskolaren Hezkuntza Proiektua prestatzea eta aldatzea.

2.Eskolaren Urteko Plana.

3.Antolamendu eta Funtzionamendu Araudian eskubide-eginbeharrak eta bizikidetzeta eta diziplina arauak definitzea.

4.Asanbladaren aholkularitza eskatzen duten bestelako alderdiak.

37. artikulua.

Mahaiaren eledunak deituko du Asanblada, mahaiak berak erabakiko dituen egunerako eta gai zerrenda aztertzeko. Asanbladaren mahaia arduratuko da erakunde autonomiadunaren zuzendariari Asanbladak onartutako proposamenak eta adierazi nahi dizkion iritzia helarazteaz, baita Asanbladak egoki jotako ekintzak abiarazteaz ere.

2. KAPIITULUA. IKASLEEN ELKARTEA

38. artikulua.

1. Ikasleen elkarteak ikasleek borondatez parte hartzeko eta laguntzeko organoak dira.
2. Eskolak onartuko egingo ditu indarreko legeen arabera eratuta egonez gero, eta Eskola Kontseiluari bide ofizialetatik jakinaraziko diote horrelakorik dagoela.

39. artikulua.

1. Eskola Kontseilua aldi-aldi egiten dituzten jardueren jakitun jarriko dituzte.
2. Beren ekintzak gauzatzeko Eskolako lokalak erabil ditzakete, irakats bizitza ohikoa oztopatzen ez badituzte. Zuzendaritzak behar dituzten lokalak utziko dizkie, Eskolaren baliabideen arabera eta elkarteak aurretik nolako beharrak dituen jakinarazi badio.
3. kapitulua: Ikasleen ordezkariak eta ekintza kolektiboetako partaidetza

40. artikulua.

1. Ikasleen jarduera kolektibo guztiek ordezkari bat izango dute, kide guztien artean aukeratua, eta haren ardurapekoak izango dira honako hauek:

- a) Taldearen funtzionamendua hobetzeko ekimen eta iradokizunak aurkeztea.
- b) Taldekideak defendatzea baldin eta eskubideren bat urratu edo eginbeharren bat huts egin dietela iritziz gero.

Ordezkaritari informazioa helarazi eta kontsulta egingo diote taldeak egin beharreko ekintzen gainean.

LAGUN BAKARREKO ORGANOK

12. ATALA. Erakunde Autonomiadunaren Lehendakaria

41. artikulua.

1. Erakunde Autonomiadunaren lehendakaria izango da Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiadunaren estatutuek xedatzen duten laguna.
2. Erakunde Autonomiadunaren lehendakariaren zeregin eta eskumenak Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiadunaren estatutuek definitzen dituzte.

13. ATALA. Erakunde autonomiadunaren Zuzendaria

42. artikulua.

1. Erakunde Autonomiadunaren zuzendaria Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du.
2. Erakunde Autonomiadunaren zuzendariaren zeregin eta eskumenak Musika eta Dantza Eskola erakunde autonomiadunaren estatutuek definitzen dituzte.

43. artikulua.

Eskola Zuzendariari izendaturiko zereginak garatu eta egituratzeko, eskumen horien edukia arautzen duten lege xedapenak betetzeko eta zerbitzuak irakaskuntza, ikaskuntza, arte edo kultura aldetik hobetzeko, Erakunde Autonomiadunak Aholkularitza Batzorde bat eta zerbitzuen ezaugarrien araberako bestelako organoak sortu ditzake.

14. ATALA. Ikasketa Burua

44. artikulua.

1. Ikasketa Burua da pedagogi alorraren arduraduna eta zuzendariaren ordezkoa izango da alor horretan hura kanpoan edo gaixorik balego.

2. Erakunde Autonomiadunaren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du, Erakunde Autonomiadunaren zuzendariak Klaustroa osatzen duten irakasle guztien artetik proposatuta.

3. Hiru urtean egongo da arduran izendatzen eta karguaz jabetzen denetik, aginpidea amaituta bertan behera utzi beharko duela, baita, ohiz kanpoko bidetik, dimisioa ematen duelako edo kargutik kentzen dutelako ere.

45. artikulua.

Hona hemen ikasketa buruaren eginkizunak:

1. Erakunde Autonomiadunaren zuzendariaren ordezkoa izatea pedagogi alderdietan eta Eskolaren irakats bidean, hura kanpoan, gaixorik edo ezinean egon ezean.

2. Erakunde Autonomiadunaren zuzendariari aholku eta laguntza ematea Musika eta Dantza Eskola antolatzen, gobernatzen eta administratzen.

3. Eskolaren Urteko Jarduera Planaren proposamena prestatzea.

4. Koordinatzea eta zaintzea bai irakasleek bai ikasleen eskola jarduerak, Eskolaren Urteko Planarekin zerikusia dutenak, behar bezala betetzen direla.

5. Eskola ordutegiak prestatzea departamentuekin batera eta horiek estu bete behar direla zaintzea.

6. Ezarritako irizpide pedagogikoak betetzen direla zaintzea.

7. Ikasketa eta lanbide orientazioko jarduerak koordinatzea.

8. Jarduera osagarriak eta zerbitzuetakoak programatzea eta koordinatzea, Erakunde Autonomiadunaren zuzendariaren jarraibideen arabera.

9. Eskolaren material didaktikoaren zaintza eta erabilera.

10. Zuzendariak bere eskumenen arabera izendatzen dizkion beste zereginak.

15. ATALA. Idazkari Akademikoa

46. artikulua.

1. Erakunde Autonomiadunaren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du Erakunde Autonomiadunaren zuzendariak Klaustroa osatzen duten irakasle guztien artetik proposatuta.

2.Hiru urtean egongo da arduran izendatu eta karguaz jabetzen denetik, aginpidea amaituta bertan behera utzi beharko duela, baita, ohiz kanpoko bidetik, dimisioa ematen duelako edo kargutik kentzen dutelako ere.

47. artikulua.

Idazkari akademikoaren eginkizunak:

1.Erakunde Autonomiadunaren zuzendariaren ordezkoa izatea Eskolaren erakunde ordezkartzan, hura kanpoan, gaixorik edo ezinean egon ezean.

2.Erakunde Autonomiadunaren zuzendariari aholku eta laguntza ematea Musika eta Dantza Eskola antolatzen, gobernatzen eta administratzen.

3.Departamentuen jarduera burokratiko guztiak koordinatzea.

4.Eskolan eragina duten laguntza zerbitzuetako ekintzak koordinatzea.

5.Eskolaren material ez didaktikoaren zaintza eta erabilera.

6.Datu akademikoak antolatzea.

7.Eskola Kontseiluaren, Klaustroaren eta Departamentu Buruen Batzordearen bilkura aktak egitea.

8.Zuzendariak bere eskumenen arabera izendatzen dizkion beste zereginak.

16. ATALA. Departamentu Buruak

48. artikulua.

1.Departamentu bakoitzak departamentu buru bana izendatuko du bere kideen artetik, eta hark ordezkatzeko ditu Departamentu Buruen Batzordean.

Departamentu burua aukeratzeko modua:

a)Zenbat departamentu izango den zehaztu ondoren, 15 eguneko epea izendatuko da borondatez hautagaiak aukeratzeko.

b)Epea amaitutakoan departamentukoak elkartuko dira hautagaien artetik aukeratzeko.

c)Borondatezko hautagairik egon ezean, zotz egingo da 1998.eko ekainetik zuzendaritza ardurarik izan ez duten departamentuko karrerako funtzionario edo kontratu finkodunen artean.

d)Borondatezko bakarra balego, bozketa isilpekoa egingo da departamentuko kide guztien artean, eta borondatezko hautagai bakar horren gehiengo arrunta lortu beharko du departamentuaren ontzat emana lortzeko. Lortu ezean, c) ataleko zozketa egingo dute.

e)Departamentu burutza bereganatzeko prest dauden hautagai batzuk egonez gero, isilpeko bozketa egin eta gehiengo arrunta lortzen duen hautagaia izendatuko dute. Hautagai bakar batek ere lortuko ez balu gehiengo arruntik, zotz egingo da hautagaien artean.

f)Zozketaren emaitza denek onartu beharko dute, eta ez da ukorik onartuko, salbu eta aukeratzen den lagunak azken bi urteotan zuzendaritza arduraren bat (idazkaria, ikasketa burua, departamentu burua)

izan badu.

2. Departamentu buruaren ardura bi urtekoa izango da, eta berritzekotan, ikasturteko hirugarren hiru hilabetean berri behar da, hurrengo ikasturteko programazioa erraztearren.

3. Departamentuaren funtzionamendu zuzeneko kide guztien jardun koordinatua datza, eta, hartarako, departamentu buruak beharrezko deritzon bakoitzean edo kideen heren batek elkartuko dira, gutxienez, hilean behin. Departamentuari atxikitako irakasle guztiek nahitaez joan behar dute deitzen diren bilkuretara.

49. artikulua.

Departamentu buruaren eginkizunak:

1. Departamentua koordinatzea eta bateratuta lan eragitea.

2. Bere departamentuaren ordezkari moduan Eskolako Departamentu Buruen Batzordean parte hartzea.

3. Bilkurak deitu, antolatu, prestatu eta zuzentzea, bilkura akta idaztea.

4. Lanak kideen artean banatzea.

5. Departamentuan atzemandako gorabeheren jakitun jartzea ikasketa burua eta zuzendaria.

6. Departamentuak ikasturtean egiten dituen jardueren urteko txostena aurkeztea.

17. ATALA. Administrazio Unitatearen Burua

50. artikulua.

Administrazio Unitatean Burua arduratuko da aipatu unitatearen lana eragiteaz, bideratzeaz eta koordinatzeaz.

8. ATALA. Profesionalen taldeen zuzendariak

51. artikulua.

Profesionalen taldeen zuzendariak elkarrekin zuzendaritza artistikoaz arduratuko dira, baita programazioa prestatu eta taldeen kontzertuak eta emanaldiak zuzendu ere.

Halaber, nahi beste proposamen aurkeztu ditzakete beren taldeen funtzionamendua hobetzeko.

II. TITULUA

IRAKASLEAK

1. ATALA. Lan Saioa

52. artikulua.

Irakasleen lan saioan eskola egunak eta eskolarik gabeko egunak bereiziko dira.

Eskola egunak, Hezkuntza Administrazioak ematen dituen irizpideen arabeko kopuruan. Eskola eguntzat joko dira eskola ematekoak, azterketarakoak eta eskola egutegian jasotako alorreko zaindarien jaiegunak.

Eskolarik gabeko egunak izango dira hitzarmenean finkatzen de negutegia betetzeko falta diren gainerako egunak. Eskolaz kanpoko garaikoak izango dira, eta birziklatze ikastaroak, proiektuak, oroitidazkiak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar gauzatzeko erabiliko dira.

53. artikulua.

1. Irakasleen asteko lan saioa Eskolaren Urteko Planean jasoko dira, eta honako kontzeptu hauek erabilita sailkatuko dira:

a) Eskola orduak, irakaspen teoriko eta praktikoetarakoak zein azterketa mota guztiak egitekoak: Ahozkoak, idatziak, musika tresna, dantza eta abar, behar bezala onartutako eskola egutegiaren baitan. Astean 22,5 ordu erabiliko dira halako jardueretan.

b) Eskolarik gabeko orduak, 30 orduko asteko saioa osatu arte, honako hauek egiteko erabiliko dira: Eskolak prestatzea; ariketak eta jarduerak moldatzea; ekintza osagarriak programatu eta gauzatzea; departamentu, tutoretza, ebaluazio, guraso eta organo kolegiatuen bileretan egoteko; kultur ekintzak egitea; entzunaldiak, ikerketak, argitalpenak prestatzea.

2. Hitzarmenean jasotzen den moduan, gainerako langile publikoen ordutegia berdindu arteko ordu kopuru bat ere izango da, eta orduak profesionaltasunaz arduratzeko, irakaskuntzari berez dagozkion eginbeharretarako eta zerbitzu ordutegien berezitasunak konpentsatzeko erabiliko dituzte.

54. artikulua.

Zuzendaritza ardura duten irakasleei eskola orduen murrizketa eta lansari osagarria izendatuko zaizkie, lan komenioan eta erakunde autonomiadunaren lanpostuen zerrendan zehazturikoaren arabera.

2. ATALA. Ordutegiak

55. artikulua.

1. Ordutegiak prestatzeko prozesua eta horiek kontrolatzea ikasketa buruaren ardura da, departamentuekin batera zuzendariari proposatu beharreko borradorea prestatuko dutela; zuzendariak ordutegiak alda ditzake araudi honetan xedaturikoen, aurretik erabakitako irizpideen edo Eskolaren interesen arabera egokiak ez direla iritziz gero.

2. Ordutegiak egiterakoan honako urrats hauek egin beharko dituzte:

a) Irizpideen eta jarraibide nagusien definizioa Departamentu Buruen Batzordeak aztertuko ditu.

b) Hori dena irakasleei helaraziko diete, nork bere ordutegia presta dezan.

c) Irakasle bakoitzak bere ordutegia bidaliko dio ikasketa buruari, hark denak aztertu eta zailtasunak konpon ditzan. Izapidea gaindituta, erakunde autonomiadunaren zuzendariari bidaliko diote, hark ontzat eman eta eranskin moduan Eskolako Urteko Planari erants diezaion.

3. Irakasle on eguneroko irakastaldia beteko da eskolako ordu aukeraren barnean (08:00-22:00), beti ere Eskolako Urteko Plana eta ikasleen ezaugarriak kontuan.

3. ATALA. Eskubideak eta eginbeharrak

56. artikulua.

Lan alorreko legeek onarturikoez gain, irakasleok honako eskubide hauek edukiko dituzte:

- 1.Instalazioak bakoitzak bere eginkizunerako erabiltzea eskola zabalik dagoen bitartean.
- 2.Ordu-tegiak prestatzea eskolaren irizpideen arabera.
- 3.Bere eginkizunak betetzeko behar duen materiala edukitzea.
- 4.Segurtasun eta higie-ne baldintza egokietan irakastea.
- 5.Ordez-kariak aukeratzea Eskola Kontseilurako.

57. artikulua.

Lege harremanaren ondoriozko ez gain, irakasleak honako hauek betetzera behartuta daude:

- 1.Eskola ordu-tegia atzerapenik gabe betetzea.
- 2.Eskoletan ordena, diziplina eta aprobetxamendua sustatzea eta arduradun eskudunari gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.
- 3.Ikasleari eman beharreko txostenak, ikaslearen bilakabidea jasotzekoak, prestatzea. Halaber, izendatzen dizkieten ikasleen tutorea izatea.
- 4.Gurasoak eta tutoreak hartzeko ordu-tegiak finkatzea.
- 5.Izendatutako zereginen buruz eskatzen dizkieten txostenak prestatzea.
- 6.Irakasle klaustro, ebaluazio saio, departamentu bilkurak eta irakasle lana dela-eta deituriko bestelako bilkuretara ere agertzea.
- 7.Eskolaren arauak betetzea, instantzia egokietara jotzeko eskubidea izanda kalteren bat jaso dutela iritziz gero.
- 8.Aukeratzen edo izendatzen badute, kargua onartzea, Eskolaren araudiaren arabera.

4. ATALA. Tutorea

58. artikulua.

Ikasle guztien tutore bana izango dute, Eskolako ikasketan laguntzeko. Ikasketa buruak bestela ebatzi ezean, honako tutore izendapena egongo da indarrean:

—Jakintzagai bakarreko ikasleak tutore jakintzagai horretako irakaslea izango du.

—Jakintzagai bat baino gehiago duen ikasleak tutore izango du jakintzagai nagusiko irakaslea, halakotzat joko dela, hurrenkera honen arabera, musika tresna, taldeko jakintzagai, jakintzagai osagarria.

Tutore-irakaslearen eginkizunak:

1. Ikasleak eta ikasleen gurasoei orientabideak eta aholkularitza eskaintzea hezkuntza-aukera eta hautabideen gainean.
2. Irakats prozesua behar bezala bideratzen dela zaintzea, ikaslearen nortasunaren, interesen eta Eskola integrazioaren jakitun egonda.
3. Etengabe ikasleen ebaluazioen jakitun egotea eta guraso-ikasleei Eskolaren Urteko Planaren edukien berri ematea.
4. Ikasketa buruarekin batera ikasleen asistentzia kontrolatzea.

III. TITULUA

IKASLEAK

1. ATALA. Eskubide eta eginbeharrak

59. artikulua.

1. Ikasle guztiak dira eskubide eta eginkizun berberen jabe. Haiek erabiltzerakoan ikasleon adina, zikloa eta irakasmila kontuan izango dira.
2. Ikasleek beren eskubideak erabiliko dituzte eskola komunitateko gainerako kideen eskubideen onarpenari eta begiruneari kalterik egin gabe.
3. Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako kide guztiek aitortu eta errespetatu behar dituzte araudi honek ikasleei aitortzen dizkien eskubideak.
4. Hezkuntzako Administrazioak eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Gobernu Organoek bermatuko beharko dute, zeinek bere eskumen eremuan, araudi honetan jasotako ikasleen eskubide eta zereginak behar bezala eta estu betetzen direla.

60. artikulua.

Eskolako ikasleek honako eskubide hauek edukiko dituzte:

1. Kalitateko irakaskuntza jasotzea eta eskolan helburu hori lortzeko dauden bitartekoak erabiltzea.
2. Matrikulatu aurretik Eskolaren Hezkuntza Proiektuaren, Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren, Eskolaren Urteko Planaren eta ikasi nahi dituzten gaien gaineko jakingarrien (ordutegiak, ikasketa programak eta abar) argibideak jasotzea.
3. Pertsonaren osotasun fisikoa, psikikoa, morala eta dignitate moralarenganako errespetua jasotzea, inondik inora tratu txar edo itsusgarririk izan gabe, ezta tratu txar fisiko edo moralik dakarren zigorrik jaso ere.
4. Eskola etekina objektibotasunez baloratzea.
5. Ekimen, iradokizun eta erreklamazio mota guztiak egin ahal izatea iradokizun postontzia, tutorearekiko edo ikasketa buruarekiko bilkurak, gurasoen elkarteak, eskola kontseilua eta abar erabilia.

6. Xedaturiko eskola ordutegia errespetatzea eta irakaskuntza bertan behera utzi edo aldatuz gero, gutxienez ere bi egun lehenago argibideak jasotzea, ezinbestekorik gertatu ezean.

Dena delakoagatik halako egun jakin batzuetan eskolara ikasle gutxi etorri arren, Musika Eskolak eta irakasleak, halere, eskolak eman beharko dituzte.

7. Irakasleen eskola eta tutoretza orduak ezagutzea.

8. Segurtasun eta higie baldintza egokietan ikastea.

9. Jakintzagai eta irakaskuntza mailetara sartzeko aukera berdintasuna, mugakizun bakarrak etekina eta ikasteko gaitasuna izango direla.

10. Aldian-aldian norberaren ikasketen bilakabidearen gaineko argibideak jasotzea.

Irakasleak ahoz zein idatziz –hiruhileko nota buletina– ikaslea eta adinez txiki den ikaslearen gurasoak ikaslearen ikasketen bilakabidearen jakitun jarri beharko ditu.

Gainera, gurasoei ohar idatzien bitartez gelako gorabeheren berri eman diezaieke.

2. ATALA. Huelga egiteko eskubidea

61. artikulua.

1. Ikasleen eskubidea da gobernu organoek hartutako erabakiekin konforme ez egotea.

Desadostasuna ikastera ez joateko proposamenaren bitartez adierazi nahi izanez gero, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Ikastera ez joateko proposamena, nolahi ere den, ikasleen partaidetza espezifikoa artikulatzen duen organoak egin beharko du, berez, eskolan matrikulaturiko ikasleen %5ek eskatuta edo legez eratutako ikasleen elkarten zein asanbladen ordezkariak adierazita.

b) Ikastera ez joateko proposamen behar bezala arrazoitua idatziz aurkeztu beharko dute, gutxienez, deitzaileek aukeraturiko data baino bi lanegun lehenago, eta idatzian deitzailea, eguna, orduak eta programaturiko ekintzak adierazi beharko dituzte.

c) Salbuespen moduan, lanegun bat lehenago ohartarazita ere egin liteke, deitzaileek presaren zergatikoak azalduta.

d) Ikasleen partaidetza eskolan bideratzen duen organoak berehala jakinaraziko dizkie proposamenak zuzendaritzari eta eskolako ikasleei.

e) Eskolara ez joateko eskabidea ikasleei aurkeztuko diete, haiek, gehiengo absolutuz eta bozketa isilpekoan erabaki dezaten, ordezkariak edo delegatuak eskolara ez joateko proposamenaren zergatikoei buruzko argibideak eman ondoren.

f) Bozketen akta egin beharko du ikasleen partaidetza espezifikoa artikulatzen duen organoaren kide batek, ondokook jasotzeko:

Tokia, hasiera ordua, ikasle kopurua, partaideak, aldeko-aurkako botoak eta abstentzioak, bozketaren emaitza, eskolara joateko proposamena onartzen den ala ez berriaz adieraztea, eta amaiera ordua.

g)Ikasleen partaidetza artikulatzen duen organoaren lehendakariak ahalik eta arinen helaraziko dizkio aktak Eskolako Zuzendaritzari, ahal dela, 24 ordu lehenago, eta, presazko deialdia balitz, 12 ordu lehenago.

h)Eskolako Zuzendaritzak prozedura guztiaren jakitun jarriko du Eskola Kontseilua, berak bermatu beharko baitu dena beha bezala betetzea hurrengo ataletan azaltzen direnak betetzeari begira.

i)Aurreko atalean adierazitako irizpideak betez gero, eskola huts egiteak ez du diziplina ondorioz izango, baina adin txikikoen gurasoei edo tutoreei jakinaraziko diete telefonoz.

j)Nolanahi ere den, Eskolak bermatuko du eskolara doazenek duten eskubidea, eta irakasleek behar bezala artatuko dituzte, jakintzagaiei dagozkien ekintzak egiteko.

k)Ikasleek eskolara ez joateko eskubidea erabiltzeak ez ditu irakasleak behartuko eskolara ez joandako egunean landutako eskola programaren zatia berriro azaltzera.

62. artikulua.

Ikaslearen eginbeharrak:

- 1.Zentroaren araudia onartzea eta betetzea.
- 2.Hezkuntza Komunitateko gainerako kideen eskubide-zereginak errespetatzea.
- 3.Eskolak xedatutako epeetan tasak eta ordainak behar bezala ordainduta edukitzea.
- 4.Helbide edo beste datu pertsonalen aldaketen berri ematea.
- 5.Irakasleak Eskolaren jarduera ohikoan eragina izan dezakeen ezein gorabeheren jakitun jartzea.
- 6.Zentroaren ondasun higiezinak, instalazioak eta materiala behar bezala erabiltzea, behar bezala ez erabiltzearen ondorioz egindako kalteak konpondu eta halakoen erantzukizuna izango duela.

63. artikulua.

Ikastea ikasleen oinarritzko eginbeharra da, eta honako obligazio hauek ditu muintzat:

- 1.Matrikula egindako jakintzagaietarako eskolak eta partaide den taldeen entseguak hutsik ez egitea eta ezarritako ordutegiak betetzea.
- 2.Ikaste behar beste denbora eta lan ematea, hartutako lezioak behar bezala aprobetxatzen dituela erakusteko.
- 3.Eskolak programaturiko ekintza eta ariketa publikoetan parte hartzea, egoki iritzitako entseguetara joatera behartuta egongo ere dela.

3. ATALA. Diziplina araubidea

64. artikulua.Arauk haustea.

Ikasleek arau hauste arin, larri eta larri-larriak egin ditzakete.

Huts arinak:

- a) Garaiz ez heltzea behin baino gehiagotan zio funtsaturik ez dagoela.
- b) Asistentzi huts funtsatu gabe eta noizean behingoak.
- c) Eskolaren egoitzari, materiala edo Eskola Komunitateko beste lagunen gauzei nahita egindako kalte ez larria.
- d) Eskola Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza ez larriak Eskola Komunitateko kideen aurka.
- e) Eskola Komunitateko beste kideen aurkako eraso fisiko ez larriak.
- f) Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banako edo taldekoa, baldin eta ikastetxeko ohiko jarduna modu arinean aldatzen badu.

Huts larriak:

- a) Eskola Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza larriak Eskola Komunitateko kideen aurka.
- b) Eskola Komunitateko kideen aurkako eraso fisiko larria.
- c) Beste inor suplantatzea hezkuntza ekintzetan eta dokumentu akademikoak faltsutzea edo lapurtzea.
- d) Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalte larriak egitea Eskolako lokal, material edo dokumentuei edo Eskola Komunitateko gainerako kideen gauzei.
- e) Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banako edo taldekoa, baldin eta ikastetxeko ohiko jarduna modu larrian aldatzen badu.
- f) Ikasturte berean hiru huts larri egitea.

Huts larri-larriak:

- a) Asistentzi falta justifikatu gabe eta errepikatuak, ikasturteko eskola guztien % 10etatik aurrera.
- b) Eskola Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza larri-larriak Eskola Komunitateko kideen aurka.
- c) Eskola Komunitateko gainerako kideen aurkako eraso fisiko larri-larria.
- d) Eskolako Komunitateko kideen osasuna eta osotasun pertsonalerako ekintza kaltegarri-kaltegarriak eragitea.
- e) Nahita kalte larriak egitea Eskolako lokal, material edo dokumentuei edo Eskola Komunitateko gainerako kideen gauzei.
- f) Larrizat jotako arau hausteak, baldin eta taldekoa edo nahita iragarrita gertatzen badira.
- g) Ikasturte berean hiru huts larri egitea.

65. artikulua. Zigorrak.

1. Aurretik zerrendatutako hutsengatik, honakoz igor hauek ezar daitezke:

Arau hauste arinak:

Ahoz edo idatziz kargu hartzea eta idatziz jasota uztea. Egoeraren arabera, gurasoei edo tutoreari txosten zehaztua bidaliko ere zaie.

Huts larri eta larri-larriak:

Eskolatik aldi baterako edo betiko bidaltzea, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea ere galtzea lagun eraman dezakeela.

2. Kalte materialik egotekotan, arau hausleak eragindako kalteak konpondu beharko ditu edo konponketa ordaindu. Halaber, ikasleren batek Eskolaren ondasunik lapurtuz gero, ostutakoa berriro ekarri beharko du. Nolanahi ere den, ikasleen guraso edo lege ordezkariak izango dira ikasleen erantzule zibilak, legeek xedaturikoaren arabera.

66. artikulua. Zigor jardunbidea.

1. Eskolaren zuzendariak edo horren ordezkariak izango du zigorrak izapidetzeko eta ezartzeko ahalmena, Eskola Kontseilua jakitun jarrita.

Zigor arinak ezarriko dira ikasleari eta irakasleari edo tutoreari entzun ondoren. Zigor larri eta larri-larriak jartzeko legezko jardunbidea abiaraziko da, eta prozeduraren baitan ikasleari eta adin txikikoen guraso edo lege ordezkariari entzunaldia aitortuko zaie. Prozedura ebatzi beharko da hasi eta hilabeteko epean, eta ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete hilabeteko epean erakunde autonomiadunaren lehendakariari.

2. Arau hauste arinak hilabeteko epean iraungiko dira, larriak bi hilabeteko epean eta larri-larriak lau hilabeteko epean, egin ziren egunetik aurrera.

Halako jokabideak direla-eta ezarritako isunak ikasturtea amaitutakoan iraungiko dira.

3. Eskolaren Zuzendaritzak zigorrak ezartzerakoan kontuan izango ditu ikaslearen adina eta egoera pertsonal, familiar eta soziala, eta zigorraz, zehapena ez ezik, helburu hezigarri eta errekupeziozkoa ere bilatuko da.

4. Zigorra ezartzerakoan, honako hauek balioetsiko dituzte:

Aringarriak:

a) Haustea berez onartzea.

b) Lehendik bestelako zigorrik jaso ez izana.

c) Jende aurrean barkatzeko eskatzea.

d) Egindakoaren neurriko kalterik egiteko asmorik eduki ez izana.

Larrigarriak:

a) Kaltea txikiago bati, minusbaliatuari edo Eskolara etorri berriari.

b)Nahita egitea.

c)Jakinarean ganean egitea.

d)Besteei ere eragitea.

e)Eskolan ordezkari izatea arau haustea egiteko erabiltzea.

5.Arau haustea eskola esparrutik kanpo gertatzeak ez du galaraziko honako araudi hau erabiltzerik, baldin eta eskolak programaturiko ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoetan izan bada.

67. artikulua.Eskola huts egitea.

Ikasleek eskolara joan beharra bermatzeko, ondoko arauak izango dira gogoan.

1.Irakasleak eta ikasketa buruak ikasleen eskola huts eginak kontrolatu beharko dituzte, baita gurasoei horien berri emango ere, gertatzen diren unean bertan, zergatikoaren informazioa ere eskatuko dutela.

2.Ikasturteko ordu guztien %10 huts eginez gero, ikasleek matrikula berritzeko eskubidea galduko dute. Orduen %10 huts egitea lehenengo hiruhilekoan gertatuz gero, ikaslea baja izango da, eta beste ikasle batek beteko du toki hutsa.

3.Irakasleak ikaslea eskola hutsen ondorioen jakitun jarriko du huts zilegien mugara heldu aurretik.

4.Ikasleak huts funtsatu gabeen kopurua agortu eta araudian xedatutako zigorrik jaso behar balu, ikasketa buruak interesatuei jakinaraziko die.

5.Gaixorik egotegatik edo bestelakoren batengatik eskola ez joatek ez du kentzen tasak ordaintzeko beharra.

6.Huts funtsatutzat joko dira honako hauek:

a)Gaixotasun aldi baterakoa edo luzea.

b)Gertaera edo egokiera larri edo ohiz kanpokoak.

c)Musika Eskolaren beste edozein ekintzarekin bat etortzea.

7.Adin txikikoen eskola hutsak idatziz funtsatu beharko dituzte gurasoek edo tutoreek, eta irakasleari eman beharko diote. Adineko ikasleek berez funtsatuko dute hutsa.

8.Ez dira huts funtsatutzat joko honako hauek: Danborrada entseguak, hizkuntza-eskolak, kirol jarduerak, katekesia, konpartsa entsegua, eskola txangoa.

IV. TITULUA

ERAKUNDE AUTONOMIADUNNEKO LANGILEAK

68. artikulua.

1.Erakunde autonomiaduneko langileek araudi hau, hura garatzeko xedapenak eta indarreko legeak bete beharko dituzte.

2. Erakunde autonomiaduneko langile guztiek beren lanpostuen obligazioak bete behar dituzte, Zuzendaritza Batzordeak onartutako lan egutegiaren arabera.

3. Erakunde Autonomiaduneko langileek bete beharko dituzte lanpostuan egiten dizkieten errekerimenduak, direla burutzak berak adierazitakoak, direla araudi honetatik berez datozenak.

4. Administrazio, Liburutegi eta Zerbitzuetako langileen ordutegia erakunde autonomiaduneari indarrean den lan hitzarmeneko izango da.

5. Urtean-urtean erakunde autonomiadunaren zuzendariak eta Alorreko zuzendariak lan egutegia prestatuko dute hitzarmenaren irizpideen arabera, eta Zuzendaritza Batzordeari bidaliko diote Langile Batzordearekin negoziatu ondoren.

V. TITULUA

ESKOLA GESTIONATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK

1. ATALA. Eskolaren Urteko Plana

69. artikulua.

1. Eskolak Urteko Plana prestatuko du ikasturtea hasi aurretik, hezkuntza-ekintza guztiak era koordinatuan egitea, eskuduntzak behar bezala erabiltzea eta kolektibo guztien partaidetza bermatzeko asmoz.

2. Urteko programazio orokorra Departamentu Buruen Batzordeak prestatuko du lagun bakarreko eta askotako organoei galdetu ondoren.

70. artikulua.

Eskolaren Urteko Planak honako zati hauek izango ditu:

a) Irakats Plana edo Irakats Ekintzen Plana.

b) Langileen Prestakuntza Plana.

c) Ekintza Osagarri eta Eskolaz Kanpokoan Plana.

71. artikulua.

1. Eskola Kontseiluak iritzia eman beharko du Eskolaren Urteko Planaren gainean, eta Zuzendaritza Batzordeak onartu beharko du irakats ekintzak hasi baino 30 egun lehenago.

2. Zuzendaritza Batzordeak onartutakoan, Urteko Plana jende aurrean jarriko da, eta eskola komunitate osoaren esku egongo da.

2. ATALA. Urteko Oroitidazkia

72. artikulua.

1. Urteko Oroitidazkia eskola ebaluatzeko tresna da. Eskolaren Urteko Plana nola bilakatu den ebaluatuko du, ikasturtean izan diren gorabehera guztiak eta hurrengo Urteko Planeari jaso beharreko

hobekuntza proposamenak.

2. Dokumentuak honako hauek jaso beharko ditu:

- a) Egindako berrikuntza eta hobekuntza proiektu guztien gaineko txostena.
- b) Egindako ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoan zerrenda eta balorazioa.
- c) Langileak Prestatzeko Programaren balorazioa.
- d) Hurrengo Urteko Planari erantsi beharreko hobekuntza proposamenak.
- e) Amaitutako ikasturtean erakunde autonomiadunak eginiko guztiak jasotzeko behar beste eranskin (irakasle txosten, matrikula datuak, sustapenak, bilera aktak, prentsa berriak).

73. artikulua.

1. Eskola Kontseiluak iritzia eman beharko du Urteko Oroitidazkiaren gainean, eta Zuzendaritza Batzordeak onartu beharko du irakats ekintzak hasi baino 30 egun lehenago.

2. Zuzendaritza Batzordeak onartutakoan, Urteko Oroitidazkia jende aurrean jarriko da, eta eskola komunitate osoaren esku egongo da.

VI. TITULUA

EGOITZE ETA MATERIALA ERABILTZEA

74. artikulua.

1. Eskolaren instalazioak zabalik egongo dira astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 22:00etara, eskola aldia osoan, eskola egutegian jasotakoaren arabera.

2. Eskola garaitik kanpo, erakunde autonomiaduna goizez egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara.

3. Ohiko eskola jarduera guztiek nahitaez bete beharko dute aipatu ordutegia.

4. Ohiz kanpoko ekintzak izanez gero, instalazioka erabil litezke erakunde autonomiadunaren Zuzendaritzak hartarako baimenik emanez gero, erakunde autonomiadunaren helburuekin bata etorri gero. Hartarako, erakunde autonomiadunaren Zuzendariak behar beste baliabide jarriko du erakunde autonomiadunaren instalazioak eskola komunitate osoak erabili ahal izateko.

5. Instalazioak eta materiala erabiliko dira hartarako onartzen den araudi berezian oinarriturik.

VII. TITULUA

IKASLE MATRIKULA ETA ONARPENA

75. artikulua. Matrikulazioa.

1. Eskola kide izan nahi duen lagunak Zuzendaritza Batzordeak onartutako baldintzak bete beharko ditu, baita gerora ematen diren lege eta araudiek xedatzen dituzten beste guztiak ere.

2. Ikasle guztiak irakaskuntza nagusian eta taldekoan matrikulatuko dira urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak xedaturiko irizpideen arabera –Euskadiko Autonomia Erkidegoko Musika Eskolak, musika irakaskuntza arautu gaberako ikastetxeak nola sortu eta antolatu arautzekoa–, nahiz eta aukerako musika tresna hautatzen duen ikasleak koru taldean ere izena eman dezakeen.

3. Matrikula da izangaia Eskolako ikasle bihurtzen duen dokumentu formala, eta haren bitartez bereganatzen du halakoak ikasleari dagozkion eskubide eta betebeharrak, Eskolako barne arauak xedaturikoa bete beharko duela.

Prozeduraren bitartez, Eskolak ikaslearen behin-behingo matrikulazioa gauzatzen du hurrengo ikasturterako, eta bi jardunbide ezberdin izango dira: Eskolako ikasle ofiziala izanda, espezialitate berean ikasten iraungo duen ikaslearena, eta onartutako ikasle berriarena.

Lehenengo ikasleei dagokienez, prozesua barruan gauzatzen da, hurrengo ikasturteko ordutegia aurretik izendatuta eta ikasleak jakintzagai eta ordu banaketa onartuaz.

Onartutakoan, Eskolako Administrazioak ikasleari matrikulazio inprimakia bidaliko dio, matrikulaturiko jakintzagaik, zenbatekoa eta ordaintzeko epeak adierazita, baita tasa murrizpen edo gainkarguak ere, halakorik balego.

Ikasle berrien matrikulazioaren oinarria Onartuen Zerrenda ematen duen xedapena da, ordutegiak aukeratzen direla hartarako egiten den zozketa publikoaren bitartez, Eskola Administrazioan bertan matrikula gauzatuta.

4. Onartutako guztiek matrikula egin beharko dute Eskolak xedatzen dituen epeetan.

Matrikula epez egin ezean, plaza galduko du, eta Eskolak itxaron zerrendako beste ikasle bati izendatuko dio.

5. Bigarren aukera moduan aukeraturiko tresna espezialitatean matrikulatzen den ikaslea irailaren 30a arte egongo da lehenengo aukera moduan adierazitako tresnaren txaron zerrendan eta, hala, udan hutsik egonez gero, itxaron zerrendaren hurrenkera beteko zen, bigarren aukerako matrikula lehenengo aukerara alda lezakeela artean interesik izanez gero.

Azkenik, Kantuko hamalau urtetik beherako ikasleek, eskabidean bakarkako kantua eskatu arren, koru kantua izango dute jakintzagai moduan, adinez txikiak izanda, ahotsa oraindik aldatu gabe dutelako. Matrikula onartu aurretik, 20 urtetik beherako bakarkako kantu ikasle guztiek kantu irakaslearekin egon beharko dute, ahotsa aldatu zaien ala ez jakiteko.

6. Matrikulatzerakoan aurkeztu beharreko dokumentuak:

—Familia Liburuaren edo nortasun agiriren (NAN, pasaporte edo baliokidea) baten fotokopia.

—Karneterakoan tamainako argazki bat.

—Familia ugariaren tituloaren fotokopi eguneratua.

76. artikulua. Lehiaketa publikoa eta plaza hutsak banatzea.

1. Aurreinskripzio garaian hurrengo ikasturtean hutsik egongo diren ustezko plaza eskaintza argitaratu arren, behin betiko plaza eskaintza argitaratuko da Zuzendaritza ebazpen bidez, Eskolako lehenengo espezialitatez aldatzen ez diren ikasleek behin-behingo matrikulazioa egin ondoren.

Ikasleen matrikulazio amaitutakoan, baten batek atzera eginez gero, lehen hiruhilekoa amaitu arte

tresna edo talde espezialitate guztietako hutsak beteko dira, taldera egokitzerakoan arazorik sortzen ez duten neurrian.

Plaza huts horiek eta jakintzagai osagarriak (Musika Mintzaira, Egungo Musika Prestakuntza eta abar) azaroaren erdialdea arte baino ez dira eskainiko.

Eskolan benetan zenbat plaza geratzen diren jakinda, plazak benetan izendatzeari ekingo diote segituan aipatzen denaren arabera.

2.Hiru eguneko epea izango da datuak egiaztatu eta, behar izanez gero, zuzentzeko, ostean, zozketa publikoa gauzatzeko aurreinskripzioa egindako izangaiekin.

Aurreinskripzioa egindako lagunak egiaztatu eta zuzendu beharko ditu aurreinskripzioetan topatzen dituen hutsak.

Zozketa egindakoan, eta aurreinskripzio zerrendan administrazio hutsik balego, ez da beste inoren egoeran eraginik duen aldaketarik onartuko, hau da, onartuen eta itxaron zerrenden hurrenkera aldatzekorik.

3.Ekainaren hasieran Eskolako Areto Nagusian zozketa publikoa izango da, eta hartan zenbaki bakarra aterako da maila, jakintzagai eta espezialitate guztietarako.

Zenbaki horrek eta segituan doazen hurrengoek sarrerako eta itxaron zerrendako hurrenkera erabakiko dute.

Halaber, edozer (ordutegia, irakaslea) dela-eta istilurik balego, zozketaren ondoriozko hurrenkerak erabakiko du ikasleen lehentasun maila.

4.1, mailan izendaturiko plaza guztiak estu-estu emango dira zozketa zenbakiak eragindako hurrenkeraren arabera.

2. eta 3. mailetakoz plazak izendatzeko, honela jokatu dute:

Lehen aukerako eskabideak:

—Eskaintzen diren adina plaza edo gutxiago dauzkatenak.

—Eskabide kopuruak eskaintako plazena gainditzen duen espezialitatean, zozketa publikoan sortutako hurrenkera beteko da.

—Eskaturiko lehen aukera moduan eskaturiko espezialitatean plaza lortzen duten ikasleak beste espezialitateetako zerrendetatik kenduko dituzte.

—Plazen %50 gordetzen dira ikasturtean bertan Musika Tresnarako Orientabideak eta Harremana jakintzagaia landu duten ikasleentzat.

—Plazak izendatuko dira sartzeko zailtasun koefizienterik txikieneko espezialitateetatik abiatuta (hau da, eskaintza plazak zati aurkezturiko eskabideak).

Bigarren aukerako eskabideak:

—Lehen aukerako plaza izendatu ondoren, eman gabe geratzen diren plazak emango dizkiete bigarren aukerako eskabideei, aurrekoan azaldutako irizpide berberen arabera.

—Bigarren aukeran matrikulatzen diren ikasleak irailaren 30a arte egongo dira lehen aukera moduan eskatu zutenaren itxaron zerrendan. Hala, hutsik edo onartutakoen matrikularik ezik balego, itxaron zerrendaren hurrenkera errespetatuko da, bigarren aukerako matrikula lehen aukerako matrikula bihur litekeela artean ere interesaturik egonez gero.

Itxaron zerrenda amaiturik edo bat ere ez balego, ekainaren erdia arte ezein espezialitatean aurreinskribaturiko edonoren matrikula onartuko da, eta, halaz ere, plaza huts guztiak beteko ez balira, handik aurrera matrikula gauzatzen duen edonor onartuko da (epez kanpoko aurreinskripzioak).

Azkenik, adierazi beharrekoa da ezen Kantuko hamalau urtetik beherako ikasleek, eskabidean bakarkako kantua eskatu arren, koru kantua izango dutela jakintzagai moduan, adinez txikiak izanda, ahotsa oraindik aldatu gabe dutelako. Onarpenak ez du biderik emango hurrengo ikasturteetan bakarlari espezialitatera berez igarotzeko.

5.Eskolako taldeetako plazak izendatzeko, honela jokatu dute:

Lehendik ezer ez dakiten dantza klasiko eta egungoaren ikasleen plazak (Dantza Klasikoa II, 1. maila, eta oinarrizko mailako gaur egungo dantza), dauden plaza bete gabeen arabera, zozketa publikoak eragindako hurrenkeraren arabera baino ez dira emango.

Zer edo zer dakiten ikasleen plazak berdin beteko dira, baina maila azterketa bat egin beharko dute aurretik, eskatzailearen maila zein kurtso edo taldetakoa den jakiteko. Alderdi hori zehaztuta, plazak zozketa hurrenkeran beteko dira.

Zer edozer dakitela adierazi arren, behar beste ez badakite Eskolak zehazturikoetatik gorako mailetara igarotzeko (Dantza Klasikoa II, 1. maila, eta oinarrizko mailako gaur egungo dantza), ezagupenik gabeko ikasletzat jota, zozketaren arabera zerrendetara joango dira.

Gainerako taldeetarako maila elkarrizketa edo azterketa izango da, ikasleen ezaugarrien berri izateko, eta, ondoren, plazak izendatuko dira taldeak behar bezala jarduteko diren behar pedagogikoak oinarritzat hartuta (X comborako bateria, musika bandarako tronboia, orkestrako biolinak eta abar).

Eskabideek talde jakin baterako plaza eskaintza gaituz gero, eta diren beharrez arabera, plaza zozketa hurrenkeraz beteko dira.

Inskripzioa egin arren, plazarik ez duten lagunekin itxaron zerrenda eratuko da, beti ere zozketa hurrenkeraren arabera, eta horren bitartez beteko dira matrikulaturiko ikasleen hutsak edo onarturikoen aurreinskripzioen matrikularik ezak.

77. artikulua. Itxaron zerrendak nola gestionatu.

Plaza lortu ez duten inskribaturiko guztiekin zozketa hurrenkeraren arabera itxaron zerrenda prestatuko da, eta epez kanpoko inskripzioekin osatuko da, aurkeztu ahalako hurrenkeran.

Sortzen diren plaza hutsak beteko dira irizpide operakor hauek erabilita:

—Ikasle batek huts egitearen ondorioz eskaintzen den plaza hutsik geratzerakoan zituen baldintzetan eskainiko da, eta Eskola ez da aldatzera behartuta egongo, eskatzailearentzat egokiena ez den arren.

—Eskolak nahi beste neurri har dezake eskola postu guztiak ahalik eta arinen betetzea bermatzeko, beti ere itxaron zerrenda oinarri hartuta.

